

Xabier Zabaltza

Historialaria

Padaniaren aurka

Ikaratu egiten naiz
pentsatzean beharbada
noizbait, Atturriren eta
Ebroren artean estatu bat
egon litekeela, baina ez
euskal estatu bat, Iberiako
Padania bat baizik

Umberto Bossi Lega Nord delakoko buruzagiak azkenean bere mehatxua burutzen badu, heldu den igandean, irailak 15, Italiako estatua desagertu egiten da. Bossik berak asmatutako herri-aren independentzia aldarrikatuko du, Venezian, hain zuzen ere. Haren Padania-k —Po ibaitik hartu du izena, Latinez Padus baita— gaur egungo Lombardia, Piemonte, Liguria, Veneto, Trentino-Alto Adige, Friuli-Venezia Giulia, Emilia-Romagna eta Valle d'Aosta bilduko ditu. 26 milioi bizilagun izanen ditu, eta estatistikek gezur egiten ez badute, Europako estaturik aberatsena izanen da, Alemania batua bera baino aberatsago. Azken bolada honetan bestelako erabakirik izan ez bada, Mantua izanen da Padania-ko hiriburua. Bandera eta guzti asmatu dute: Jaun Done Jurgiren gurutze gorria fondo zuriaren gainean.

Zertan oinarritzen da padaniar nortasuna? Kultura, hizkuntza ote? Historia amankomunean? Berezko erlijiorik ote daukate padaniarrek? Ez eta hurrik eman ere. Padaniar nazioaren funtsa diruan ez datza. Bossiren eta besteen arabera, Italiako estatua ohosten ari zaio Iparraldeari, Hegoaldeari emateko. Lega Nord nolabait alderantzizko Robin Hood aurkeztu da bere botu-emaileen aurrean. Eta arrakasta handia lortu du. Dirudienez, Padania-n anitz nazkaturik zeuden elkartasunaz eta berekoitasunaren baloreak (?) aldarrikatu nahiago izan dituzte.

Nazio bat asmatu dute. Hizkuntza berezirik gabe (beti independentea izan den San Marinon ere italiara da hizkuntza nagusia). Padania-n, Italiako gainerakoan bezala, italiara batu-tik aparte, dialekto asko mintzatzen dira. Baina Padania-ko dialektoek ez dute batasunik elkarrekin: gehienak italiararen talde galo-italikoari dagozkio —Sobiela-Caanitzek 1970ean Mediolania hitza asmatu zuen dialekto horiek mintzatzen diren eskualdeak izendatzeko—, baina Venetokoak bestelakoak dira. Italiaraz gain, Padania-n bost hizkuntz-gutxiengo daude: erreziarrak

(615.000, Friulen eta Alpe dolomitikoetan), alemaniarrak (290.000, Hego Tirolen), okzitaniarrak (200.000, Piemonten), esloveniarrak (80.000, Triesteren inguruan) eta harpetaniarrak (70.000, Valle d'Aostan gehienbat). Zer esanik ez, gutxiengo horien mugimendu nazionalistak ez dira batere Padania-ren aldeko. Mantuaren uztarriaren menpean egon baino Erromatarren menpean segitu nahiago. Neroni, euskaldun naizen alde-tik, asko pentsarazi didate Bossik

eta haren jarraitzaileek. Italian bezala, Espainian ere desoreka handia dago erabat industrial eta europarra den Iparraldearen eta arras egoera behartsuan dagoen Hegoaldearen artean. Italian bezala, Espainian ere mugimendu independentistak erregio aberatsenetan gauzatu dira: Euskal Herrian eta Katalunian, hain zuzen ere. Euskal Herrian, gainera, Katalunian ez bezala, berezko mintzairari mugimendu nazionalistak ez dio behin ere merzei duen garrantzia eman. Batzuetan iruditzen zait hizkuntza ez dela euskal abertzaletasunaren helburua, haren aitzakia baizik. Bossik 1993an asmatu zuen bere Padania —Cisalpia deitezketan egon zen—, inoiz ukatu ez zuelarik, San Marinon bezala, italiara izanen zela estatu berriko mintzaira nagusia. Sabino Aranak 1896an asmatu zuen bere Euzkadi. Ez bide zitzaion Euskal Herria gustatzen, euskara beti bigarren mailako osagarria izan zelako bere pentsamentuan, ustezko euzko abenda edo arraza baten aldean. Padaniar batzuk ere berezko arrazaz mintzatzera ausartzen dira. Ikaratu egiten naiz pentsatzean beharbada noizbait, Atturriren eta Ebroren artean estatu bat egon litekeela, baina ez euskal estatu bat, Iberiako Padania bat baizik. Zer esanik ez, hori beste gaztelau estatu bat izanen litzateke. Italiako Padaniak bezala, Iberiakoak ere bere hizkuntz-gutxiengoak izanen lituzke. Izan ere, Iberiako Padaniar gaztelauak liriateke nagusi, euskaldunak gutxiengo horietako bat besterik ez liriatekeelarik izanen, frantsesekin eta gaskoiekin batean. ■

Lourdes Oñederra



Udaren amaieraren tristurak

Afrikarrei ez diegu uzten Europan sartzen. Hegoaldeko Ameriketakoek ez diete uzten Ipar aldeko Ameriketara sartzen. Berlinekoa bezain murruslotsagarria ari omen dira eraikitzen Mexiko eta Estatu Batuen artean. Baina hori ez da telediarioetan ateratzen. Osasunaren kontrako deklaratu dute sexua, alkohola, tabakoa eta droga guztiak (laster kafea, ikusiko). Baina inork ez ditu agerian jartzen arma salmentatik aberasten direnen izenak, droga debekatuekin milioe askoko negozioak egiten dituztenen erretratoak, ume eta emakume salerosketa sarean jabeen nortasunak. Beno, bai, horietako batzuen etxeak eta yateak, azkeneko modelitoa, aterako ziren uda honetako gizarte-kronikak egiten dituzten argitarapenetan.

Etxebizitza xarpa bat erosteko bizi osorako zorretan itota ibili behar duten gajo eta gizarajoak, nonbait, kontsolatu egiten dira errebestetako beautiful people-ari begira. Sublimazioaren indarra.

Errazago moralitate estuaren bidetik aldame-nekoaren plazerra izorratzen indarrak galtzea. Etxebizitza duin eta lasai erosteko eskubidea baino inportanteago bihurtu da erretzen ez dutenen eskubidea... Guztioi jarriko al zaigu azkenean Bill eta Hillaryren itxura kasto moñoñoa edo Espainiako gobernu-jendearen aldarte txukun aspergarri hori?

Jean Louis Davant



Urtatse irailan?

Klimatologoaren arabera, biga dira urteko aroak: uda eta negua. Poeten asmakuntzarak omen liriateke arteko beste bi sasoinak: udaberria eta udazkena, primadera eta larrazkena. Ber haritik, aita Lafitte zenak erraiten zigun euskaldun zaharrentzat hiruna azpi-arotan zatitzen zirela uda eta negua, horrela bi hila-betetako sei azpi-sasoin baitzituen urteak: batetik udaberria, udamina edo udabetea (uztail-abuztuetan) eta udazkena, bestetik neguhastea, negumina edo negubeltza (urtarril-otsailtan) eta neguazkena.

Saillketa horrek badu kanore. Denek usnatzen dugu joan zaigula zinezko uda, eta arras beste denboraldi batean sartzen garela: bukatu zirenen oporrak, ikasgeletako bidea hartzen du ikasle-erakasleen mundu erraldoiak, lanera itzultzen dira horren ukaiteko zoriona dutenak, beren mezuak berriz botatzen dizkigute politikariek... Meteorologia ere aldatu zaigu, ederrera jo du azkenean, hots udazkena hasi zaigu egutegiko egun ofizialaren zain egon gabe. Jende askorentzat, urte berri batek du hor egiazko hastapena. Praktikan, benetako urtatse ez ote dugu iraila lehenean?

L A P h I T Z A

